

IKASTURTE HASIERAKO GIDA JOAKIN LIZARRAGA IP

EGUTEGIA (Eranskina)

- Ikasturte hasiera: irailak 7
- Ikasturte hasiera 3 urte: irailak 8

ORDUTEGIA

	IRALA	URRIA - EKAINA
3 URTE	9.05 - 13.05	9.05-14.05
4 URTE	9.00-13.00	9.00-14.00
5 URTE	9.00-13.00	9.00-14.00
LH1	9.05 - 13.05	9.05-14.05
LH2	9.05 - 13.05	9.05-14.05
LH3	9.00-13.00	9.00-14.00
LH4	9.00-13.00	9.00-14.00
LH5	9.00-13.00	9.00-14.00
LH6	9.00-13.00	9.00-14.00

SARRERAK ETA IRTEERAK (Eranskina)

SARREREN ORDUTEGIA ETA ATEAK

- Sarrera malgua izango da jende multzoak ekiditzeko. Ikasle guztiak 8:50-9:00 bitarte geletara sartzeko aukera izango dute, ikasturte bakoitzari egokitu zaion atetik. LH1 eta LH2 mailak izan ezin, zeintzuk pista estaliaren ate batetik sartuko diren. Han gela bakoitzeko irakasle bat zain egongo da.
- 3 urteko ikasleak 9:05etan sartuko dira gelara.
- 4 urte A gelako ikasleak, Haur Hezkuntzako patioetik sartuko dira.
- 4 urte B gelako ikasleak, Haur Hezkuntzako eraikinaren alboan dauden eskaileretatik sartuko dira.
- 5 urte A gelako ikasleak, Haur Hezkuntzako eraikinaren ate nagusitik sartuko dira.

IRTEEREN ORDUTEGIA ETA ATEAK

- Irteerak mailakatuak izango dira.
- Taldeak ordenean aterako dira, denak batera pasabidean ez elkartzeko.
- Irteerak, sarreren ate berdinetik egingo dira.
- LH1 eta LH2 mailako ikasleak, irakasleaz lagunduta, futbitoko kanpoko pistaraino abituko dira, non familiak zain egongo diren. Han gela bakoitzak bilketa puntu zehatza izango du.

- LH3 mailako ikasleak, irakasleaz lagunduta, gela bakoitzak izango duen bilketa punturatino joango dira.

FAMILIAK

- Haur Hezkuntzako ikasleak, heldu bakar batez lagunduta sartuko dira eskolan eta honek umea gelako atean utzi bezain laster alde egin beharko du.
- LH1 eta LH2 mailako ikasleak, heldu bakar batez lagunduta sartuko dira eskolan eta honek umea pista estaliko ate batean utzi bezain laster alde egin beharko du.
- LH3 mailako ikasleak, heldu bakar batez lagunduta sartuko dira eskolan eta honek umea bere mailako atean utzi bezain laster alde egin beharko du. BAKARRIK IRAILEAN. Urritik aurrera, LH3 mailako ikasleak helduen laguntzarik gabe sartuko dira eskolan.
- LH4, LH5 eta LH6 mailako ikasleak helduen laguntzarik gabe sartuko dira eskolan.
- Irteeren orduan, heldu bakar bat sartuko da patiora umearen bila.

EZ OHIKO KASUAK

- Salbuespen gisa ikasleren bat sarrera eta irteeren ordutegietatik kanpo eskolara sartu edo atera behar bada, ate nagusitik egingo du heldu bakar batez lagunduta. Sarreran, atezain baten arreta izan arte itxaron beharko dute.
- Ez ohiko ordutegi batean jaso behar izanez gero ume bat, tutoreari ordu zehatza helaraziko zaio.
- Ezin dira umeak jolastorduan jaso.
- Ezin dira umeak jardunaldiaren azkenengo 15 minutuetan jaso.
- Familiak ezingo dira eskolara sartu material, hamaiketako edo ahaztutako edozein gauza uztera.

MUSUKOEN ERABILERA

- Haur Hezkuntza: bakarrik garraioan.
- LH1, LH2, LH3 eta LH4: sarrera eta irteeretan, patioan, eskola barneko lekualdatzetan.
- LH5, LH6: derrigorrezkoa uneoro.
- Irakasleak, familiak eta AZL: derrigorrezkoa uneoro.
- Musukorik gabe datorren Lehen Hezkuntzako ikaslea ezingo da eskolara sartu.
- Hezkuntza Departamentuak gomendatzen duen musukoa higienikoa da.
- Lehen Hezkuntzako ikasle bakoitzak 2 musuko ekarri beharko du egunero eta oihalezko poltsa bat bertan gordetzeko.

COVID-19 KONTAKTURAKO EMAILA

Zuen zalantzak argitu ahal izateko, email helbide bat sortu dugu.

joakinlizarragacovid@educacion.navarra.es